# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 3913

*412/2013 DEKRETUA, irailaren 10ekoa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria kargutik kentzea xedatzeko dena.*

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikuluko j) idatzi-zatian, 26. artikuluko 6. paragrafoan eta 29. artikuluan ezarritakoaren arabera, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko irailaren 10ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– María Iciar Armentia Álvarez andrea Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

2. artikulua.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko irailaren 10ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.